



Usurbilgo Udala

2024/03/21

2024KO MARTXOAREN 21EAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

Zinegotziak

Jon Mikel Azpiazu Zubeldia
Ainhoa Arrozpide Landa
Xabat Beloki Segurola
Iratxe Begiristain Otegi
Xabier Aranburu Leiva
Jose Maria Lizaso Azconobieta
Maialen Iñarra Arregi
Oskar Santamaria Picabea
Xabier Otxoa Muñoz
Ivan Iriondo Axpe
Petra Romero Pozo

Idazkaria: Xabin Juaristi Arrieta.

Ez da bertaratu: Josune Urkola Larrarte

Usurbilen, 2024ko martxoaren 21ean arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ezohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da batzarburua.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

1.- 2024KO OTSAILAREN 29KO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Batzarkideek 2024ko otsailaren 29ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2024KO OTSAILAREN 26TIK MARTXOAREN 12RA (2024/241-2024/315).



Usurbilgo Udala

2024/03/21

Alkatetzak 2024ko otsailaren 26tik martxoaren 12ra bitartean (2024/241-2024/315) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- 2024KO APIRILAREN 21EKO EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEETAKO MAHAIKIDEEN ZOZKETA.

Idacelec aplikazioa erabiliz 2024ko apirilaren 21eko Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetako mahaikideen zozketa egin da.

4.- GOI- ETA BEHE-SANEAMENDUKO SAREEN MUGAKETA (HZ.06/2020-0263).

Puntu hau batzorde batek diktaminatu gabe datorrenez, ezer baino lehen batzarkideek aho batez onartu dute gai-zerrenda sartzea eta tratatzea.

Jarraian, batzarkideek alkatearen proposamena aztertu dute aho batez onartu dute, honela dio:

“Aurrekariak

2020ko ekainaren 5ean egindako bilkuran Añarbeko Uren Mankomunitateko Zuzendaritza Batzordeak aho batez onartu zuen, besteak beste, Mankomunitatearen eta hura osatzen duten hamar udalerrien arteko goiko eta beheko saneamendu-sareen mugaketa-espeditatea hasteko erabakia.

Mankomunitatea osatzen duten bost udalerrik aurkeztu zituzten alegazioak bere garaian: Astigarraga, Donostia, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil.

Añarbeko Uren Mankomunitateko Zuzendaritza Batzordeak, 2021eko maiatzaren 7an egindako bilkuran, aho batez ere onartu zuen, besteak beste, egindako alegazioei erantzutea txosten teknikoan ezarritako moduan eta baldintzetan. Erabaki hori hartzeko Mankomunitateak aintzat hartu zituen mankomunitatearen goiko saneamendu-sarea eta toki-erakunde hori osatzen duten hamar udalerrien beheko saneamendu-sarea mugatzeko proposamen-erabakian ezarritako modua zein baldintzak. Erabaki hori Usurbilgo Udaleko erregistro orokorrean sartu zen 2021eko urriaren 27an.

Hornidura eta saneamendu sarearen kudeaketaren arduradun teknikoa den zerbitzuburuak txostena eman du, Udalaren eskuetan geratuko diren instalazioen eraginak aztertuz.

KONTUAN HARTURIK



Usurbilgo Udala

2024/03/21

- Udal arkitekto teknikoaren txosten teknikoa.
- Udal idazkariaren txosten juridikoa.
- Beheko saneamendu-sareko azpiegiturak mugatzeko eta hartzeko proposamena onartzeko eskumena Usurbilgo Udalaren Osoko Bilkurari dagokio.
- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 2ko 2/2016 Legeak 17.1.15 artikulua adierazten du udalerriak eskumen propioak baliatu ahal izango dituela hiri erabilerako uraren ziklo integraleko zerbitzuak antolatu, kudeatu, eman eta kontrolatzeko eremu materialean. Gai honetan sartzan dira behe-mailako ur-hornidura, saneamendua edo biztanleguneetako hiriko hondakin-uren eta euri-uren bilketa eta hiriko hondakin-uren arazketa ere.

Gauzak horrela, alkatearen proposamena ikusita, Udalbatzarrak aho batez erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

BAT. Añarbeko Uren Mankomunitateak egindako mugaketa proposamena onartzea Mankomunitatearen goiko saneamendu-sarea eta Mankomunitatea osatzen duten hamar udalen beheko saneamendu-sarea bereizte aldera, eta Mankomunitateak egindako beheko saneamendu-sarearen harrera onestea ere.

BI. Usurbilgo Udaleko alkateari ahalmena ematea onartutako mugaketa egiteko, mugaketaren xede diren saneamendu-azpiegituren transferentziak onartzeko edo Usurbilgo Udalak jasotzen dituen azpiegituren gainean behar den edozein dokumentu sinatu ahal izan dezan (hitzarmenak, entrega-aktak, harrera-aktak, eta abar). Era berean ahalmena emango zaio alkateari azpiegitura horiei lotutako harreman juridikoak eta eskubideak lagatzeko eta onartzeko (emakidak edo baimenak, desjabetzeak, eta abar), eta, horren ondoren, mugaketaren azken emaitza Usurbilgo Udaleko Osoko Bilkurari jakinaraziko zaio.

HIRU. Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta jendaurrean jartzea hirurogei egun balioduneko epean (60).”

Honela izan da bozketa:

Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Maialen Iñarra Arregi, Oskar Santamaria Picabea, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

5.- TXIRIKORDAKO OBRA KONTRATUAREN SUNTSIKETAREN LIKIDAZIO JURIDIKO ETA EKONOMIKOAREN BEHIN-BEHINEKO EMAITZARI CONTRUCCIONES MURIAS



Usurbilgo Udala

2024/03/21

S.A.-K AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK EZ ONARTZEA ETA BEHIN BEHINEKO LIKIDAZIO JURIDIKO EKONOMIKOA BEHIN BETIKOTZAT JOTZEA (ID.05/2021-0054).

Puntu hau batzorde batek diktaminatu gabe datorrenez, ezer baino lehen batzarkideek aho batez onartu dute gai-zerrenda sartzea eta tratatzea.

Jarraian, batzarkideek alkatearen proposamena aztertu dute aho batez onartu dute, honela dio:

“AURREKARIAK

- I.- 2021eko apirilaren 29ko Udalbatza plenoak prozedura ireki eta ohikoaren bitartez Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) eremuko Barne-Erreformatarako Plan Bereziaren Testu bategineko EQ.1 partzelan zuzkidura-alojamenduak egiteko exekuzio obra kontratatzeke espedienteari onespena eman zion, udal Kontratatzaille Plataforman argitaratuz.
- II.- 2021eko irailaren 30eko Udalbatza plenoaren erabakiz esleipena CONSTRUCCIONES MURIAS S.A. enpresari egin zitzaion eta kontratua 2021eko urriaren 5ean sinatu zen, 1.953.312,02 eurotan (BEZa salbuetsita). Ezarritako bermea 97.665,60 eurokoa izan zen eta zuinketa akta 2021eko abenduaren 16an sinatu zen.
- III.- 2022ko urtarrilaren 14ko 2022/30 Alkatetza Dekretu bidez (gerora Udalbatza Plenoak 2022ko urtarrilaren 27an egindako ohiko bilkuran berretsia), kontratu hau aldatzea onetsi zen, obra gehigarriak txertatzeko. Adaketaren kopurua 49.162,90 eurokoa izan zen, hau da, esleipen prezioarekiko %2,52ko igoera. Esleipendunak 2.458,14 eurotan handitu zuen kontratuaren behin betiko bermea.
- IV.- Udalbatza Plenoak 2022ko irailaren 29an egindako ohiko bilkuran kontratu hau bigarren aldiz aldatzea erabaki zuen, obra gehigarriak zein funtsezkoak ez diren aldaketak txertatzeko. Aldaketaren kopurua 29.739,41 eurokoa izan zen, hau da, esleipen prezioarekiko %1,52ko igoera. Esleipendunak 1.486,97 euroan handitu zuen kontratuaren behin betiko bermea.
- V.- Udalbatza Plenoak 2023ko martxoaren 30ean egindako ohiko bilkuran erabaki zuen obra kontratu honen prezioen salbuespenezko berrikuspena egiteko behin-behineko baimena ematea eta salbuespenezko berrikuspena kalkulatzeko irizpideen arabera zenbatekoa 136.374,27 eurotako (BEZa salbuetsita) dela zehaztea.
- VI.- Udalbatza Plenoak 2023ko urriaren 10ean egindako ezohiko bilkuran, besteak beste, honako hau erabaki zuela: “LEHENENGOA. (...) obra kontratuaren (Esp.zkia: ID.05/2021-0054) suntsiarazpena erabakitzeko prozedurari hasiera ematea, kontratistari egotz dakioken kontratuaren epea ez betetzeagatik (...) eta SPKLren 213.3. artikuluan ezarritako ondorioekin (bermea inkautatzea eta, hala badagokio, Udalarri eragindako kalte-galerak likidatzea). BIGARRENA. Kontratistari eta abal-emaileari behin-behineko proposamen hau helarazi eta entzunaldia ematea, ebazpen honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 10 egun naturaleko epean egokitzen jotzen ditu(zte)en alegazioak edo agiriak aurkez ditzaten. (...) Emandako epean ez zen inongo alegaziorik aurkeztu, Idazkariaren ziurtagirian jaso zenez.



- VII.- Alkatearen 2023ko azaroaren 20ko 2023/1144 Dekretuaren bidez erabaki zen gauzatu-tako obren likidazioari dagokion neurketak gauzatzeko, alde batetik, CONSTRUCCIONES MURIAS S.A. eta, bestetik, Iñigo Peñalva Arribas Obra Zuzendaria egiaztapen eta neurketa ekitaldira deitzea. Dekretu horren jakinarazpena eskuz egin zitzaien, 2023ko azaroaren 21ean bertan, espedienteko agirietan jasotzen denez. 2023ko azaroaren 21ean, goizeko 9:00etan, Txirikorda eraikinean bertan egiaztapen eta neurketa ekitaldia egin zen eta hiru aldeek sinaturiko akta jaso zen, ikuskapenaren ondorioak akta horren eranskinean zerrendatuz.
- VIII.- Udalbatza Plenoak 2023ko azaroaren 29an egindako ohiko bilkuran, besteak beste, honako hau erabaki zuen: "LEHENENGOA. Usurbilgo Udalak 2021eko urriaren 5ean CONSTRUCCIONES MURIAS S.A.-rekin sinaturiko Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) eremuko Barne-Erreformatarako Plan Bereziaren Testu bategineko EQ.1 partzelan zuzkidura-alojamenduak egiteko exekuzio obra kontratuaren suntsiarazpena 2023ko azaroaren 10etik behin betikoa dela jakinaraztea. BIGARRENGO. Gauzatuak obraren likidazio eta neurketa materiala erabaki honekin batera jakinaraziko den eranskinean jasotzen dena dela jakinaraztea. HIRUGARRENGO. Likidazio juridiko eta ekonomikoa abiarazteko Hirigintza saileko teknikariari txostena eskatu eta kontratuaren suntsiarazpenaren ondorioz eragindako kalte galderei erantzuteko bermeak inkautatzea. LAUGARRENGO. Alkatezari eskumena ematea likidazio juridiko eta ekonomikoko prozedura izapidetzeko eta jakinarazpenak egiteko, eta likidazioko azken erabakia (alegazioak egon edo ez) Udalbatza plenoak erabakitzea. (...)"
- IX.- Aipaturiko 3. puntuari jarraituz, kontratuaren suntsiketaren likidazio juridiko eta ekonomikoa egiteko udal Aparejadoreak txosten teknikoak osatu zuen, emaitza laburbildu honekin:

UDALAREN KOBRAZTEKO ESKUBIDEAK (kalteordainak)		UDALAREN ORDAINTZEKO BETEBEHARRAK	
Kontzeptua	Kopurua	Kontzeptua	Kopurua
Obra amaitzeko kontraturiko azpikontratak	137.867,36	-	-
Obra amaitzeko udal brigadaren lanak+ materialak	14.400,00		
Kobratu gabeko alokairuak	40.000,00		
Udal arkitekto teknikoaren dedikazio gehigarria	11.500,00		
Suntsipenerako kanpo aholkularitza zerbitzua	7.865,00		
GUZTIRA	211.632,36	GUZTIRA	0
EMAITZA: 211.632,36 € udalaren alde			

Bestetik, ezohiko prezio berrikuspenengatik kontratistari zegokion kopurua jasotzeko eskubidea galdu zuen, Kontratazio Teknikariak osaturiko txostenean jasotzen zenez.

- X.- Ondoren, 2024ko otsailaren 26ko Alkatearen 2024/251 dekretuz honako erabakia hartu zen: LEHENA: Kontratu suntsiketaren likidazio juridiko eta ekonomikoa abiaraztea eta likidazio horren behin-behineko emaitza eragindako kalte eta galeren konpentsazioengatik kalteordainen kontzeptupean udalaren alde 211.632,36 € euro direla zehaztea, oinarritzat udal Aparejadorearen eta Kontratazio Teknikariaren txostenak kontuan hartuz. BIGARRENA: Kontratistari eta berme-emaleei behin-behineko proposamen hau helarazi eta entzunaldia ematea, ebazpen honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 5 egun balioduneko epean egokitzea jotzen ditu(zte)en alegazioak edo agiriak aurkez ditzaten. HIRUGARRENA: Emandako epean alegazioak egongo balira, alegazio hauek udaleko zerbitzu



Usurbilgo Udala

2024/03/21

tekniko eta juridikoei helaraztea bakoitzak dagokion txostena egin eta ondoren kontratazio-organuak aztertu eta ebatz dezan.

- XI.- Emandako epean berme emailleek ez zuten alegaziorik aurkeztu. Kontratatik aldiz 2024ko martxoaren 8ko 2024-1274 zenbakidun sarrera errejistroaren bidez alegazio ezberdinak aurkeztu zituen.
- XII.- Alegazio horien aurrean Udal Aparejadoreak txosten teknikoa osatu du, alegazio guztiei ezezkoa emateko proposamena eginez. Kontratazio Teknikariak ere alegazio juridikoen inguruko txostena osatu du, alegazio hauek ez onartzeko proposamenarekin.

Guzti hau ikusirik, eta alkatearen proposamena ikusita, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENENGOA. Alkatearen 2024ko otsailaren 26ko 2024/251 dekretuz onarturiko obra kontratu honen suntsiketaren likidazio juridiko eta ekonomikoaren behin-behineko emaitzari CONSTRUCCIONES MURIAS S.A. kontratatik 2024ko martxoaren 8an 2024-1274 zenbakidun sarrera errejistro bidez aurkezturiko alegazioak ez onartzea aipaturiko txosten tekniko eta juridikoetan oinarrituz eta, hortaz, behin-behineko likidazio juridiko ekonomikoa behin-betikotzat jotzea.

BIGARRENGO. Eragindako kalte eta galeren konpentsazioengatik kalteordainen kontzeptupean CONSTRUCCIONES MURIAS S.A.-ek Usurbilgo Udalari 211.632,36 € ordaindu behar dizkiola zehaztea.

HIRUGARRENGO. Udalak kopuru hori kobratzeko kontratatik kontratu honetarako Usurbilgo Udalean ezarritako bermeak exekutatzeko. Gainontzerakoan, konfiskatutako bermeen zenbatekotik gora eragindako kalte-galerak kobratzeko Udalak dagokion legezko prozedura jarraituko du. Kontratu honetarako aurkezturiko bermeak honako hauek dira:

MOTA	KOPURUA	ETXEA	ZENBAKIA	UDAL KONTABILITATEAN
Kauzio segurua	97.665,60 €	Caser (Caja de Seguros Reunidos)	30000355 / 00000173	2021-JBAL-000003
Kauzio segurua	2.458,14 €	Caser (Caja de Seguros Reunidos)	30000355 / 00000180	2022-JBAL-000001
Abala	1.486,97 €	Iberaval S.G.R.	990900053291	2022-JBAL-000007

LAUGARRENGO. Halaber, kontratistari jakinaraztea Sektore Publikoko Kontratu Legearen 109.2 artikuluan oinarrituz kontratu honen bermea berrezarri beharko duela honako baldintza hauetan:

- Kopurua: 101.610,71 euro.
- Berrezartzeko epea: 15 egun natural, aurreko bermeen exekuziotik kontatzen hasita.



Usurbilgo Udala

2024/03/21

BOSGARRENGO. Erabaki hauen berri Kontuhartzaileari, berme-emailei eta Obra Zuzendaritzari ematea. Halaber, erabaki hauen berri CONSTRUCCIONES MURIAS S.A.-ri ematea eta jakinarazpen horrekin batera erabakien oinarri diren txosten tekniko eta juridikoak ere bidaltzea.”

Honela izan da bozketa:

Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Maialen Iñarra Arregi, Oskar Santamaria Picabea, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

6.- GALDERAK ETA ESKAERAK.

Ez dago.

Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:20ean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, idazkariak izenpetuz, alkatearen oniritziarekin.